



2010eko apirilaren 29a

HERRIKO KONTSEILUKO kide zairen
jaun-andreak,

Erref. : JMB/MHM – 578/2010

2010eko APIRILAREN 14an, ASTEAZKENA, 18 :00etan
HERRIKO ETXEAN IRAGAN DEN
HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA

2010eko apirilaren 7ko deialdia.

Guy POULOU Auzapez jaunaren lehendakaritzapean.

BERTARATUAK : Guy POULOU Auzapez jauna, LOLOM jauna, DUBARBIER anderea, BERLAN jauna, DOSPITAL-GHOSSOUB anderea, LALANNE jauna, WATIER DE CAUPENNE anderea, MINTEGUI anderea, HIRIART jauna, IBARLOZA jauna, CAPDEVILLE anderea, GOUAILLARDET jauna, ANIDO jauna, HARDOY anderea, GLOAGUEN anderea, ORIVE anderea, ERRANDONEA jauna, GOURAUD jauna, BAZERQUE anderea, MINTEGUI jauna, DUGUET anderea, TAPIA anderea.

AHALORDEAK : MACHENAUD jaunak LOLOM jaunari eman dio, IDIARTEGARAY PUYOU andereak DUBARBIER andereari eman dio, URBISTONDOY jaunak. IBARLOZA jaunari eman dio, ANCIZAR andereak GLOAGUEN andereari eman dio, UGARTEMENDIA andereak BERLAN jaunari eman dio.

BERTAN EZ ZIRENAK : COSTES jauna, MADRID jauna.

BERTAN ZIRENAK : BORDENAVE jauna, Zerbitzuetako Zuzendari Nagusia, LAHOURNERE jauna, Finantza zerbitzuen arduraduna.

DUGUET anderea bilkura idazkari gisa izendatua da.

GAI ZERREDA:

I/ Gai orokorrak

- 1) 2010eko martxoaren 15eko Herriko Kontseiluaren bildumaren onespena.
- 2) Herriko Kontseiluak Auzapez jaunari eman ordezkaritza (Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L 2122-22 artikulua)

II/ Finantza gaiak

- 1) Emaizten esleipena : Aurrekontu Orokorra
- 2) Zerga tasen finkatzea

- 3) Gazteria Zerbitzuaren aurrekontu erantsiaren onespina
- 4) Santa Teresa etxe-multzoaren aurrekontu erantsiaren onespina
- 5) Hasierako udal aurrekontuaren onespina
- 6) Etxebizitzarako Elkartasun Fondoa
- 7) Departamenduko Energia Hornikuntzaren Erabilgarritasun eta Mantentzerako Laguntza eta Prebentzio Fondoa
- 8) Herriko oihanaren antolaketa : finantzaketa eskaera

III/ Herriko langilegoari dagozkion gaiak

- 1) 2010eko martxoaren 14 eta 21eko eskualdeko hauteskundeetarako ordainsariak

IV/ Gai teknikoak

- 1) Karriken izendapena.

I/ Gai orokorrak

1)2010eko martxoaren 15eko Herriko Kontseiluaren bildumaren onespina

Herriko Kontseiluak aho batez onetsi du 2010eko martxoaren 15eko kontseiluaren bilduma.

Oharrak :

DUGUET andereak jakinarazi du ongi hartu duela 2009ko abenduaren 15eko bilduma, 2010eko martxoaren 15eko Herriko Kontseiluan egin zituen oharren arabera zuzendurik. Hala ere, azpimarratu du webgunea ez dela gaurkotua izan. Bestalde, Auzapez jaunak martxoaren 15ean aurkeztu duen Aurrekontu Norabide Eztabaida, oraindik onetsia izan ez dena, webgunean dagoela, oposizioaren hitza agertzen ez delarik. Hori guziaz ez da batera logikoa, eztabaida batek eztabaidak suposatzen baititu.

MINTEGUI jaunak ohartarazi du ez duela martxoaren 15eko euskarazko bilduma eskuratu. Auzapez jaunak erantzun dio bilduma hori Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoari igorri diotela euskarara itzulia izan dadin, baina orai arte ez dutela berreskuratu.

2)Herriko Kontseiluak Auzapez jaunari eman ordezkaritza (Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L 2122-22 artikulua)

Ordezkaritza horri esker, ondoko hitzarmenak izenpetu dira :

- Aldi baterako okupazio hitzarmen bat, kolokakoa eta ezeztagarria, 2010eko urtarrilaren 28an MARTINS eta JEAN jaunekin izenpetua,
- Jatetxe moduko lokalak elkarte baten esku jartzeko hitzarmen bat, 2010eko martxoaren 8an PEP elkartearekin izenpetua, apairu beroak banatu ahal izateko,
- Zokoako Zentroko langileak esku jartzeko hitzarmen bat, 2010eko martxoaren 8an PEP elkartearekin izenpetua,
- Partaidetza hitzarmen bat, 2010eko martxoaren 18an LUMA etxearekin eta Baionako Familia Laguntza Kutxarekin izenpetua, Haur Ttipiaren Harrerako Etxeen finantzaketa esperimentalaren esparruan.

II/ Finantza gaiak

1)Emitzen esleipena : Aurrekontu Orokorra

Txostengile : LOLOM jauna

M 14 jarraibidearen arabera, komeni da funtzionamendu atalaren emaitza esleitzea.

2009ko kontu administratiboaren emaitzak honako hauek dira :

Inbertsio atala : 94,02 €-ko betetze defizita

Funtzionamendu atala : 778 319,01 €-ko betetze soberakina

Auzapez jaunak proposatu du soberakin hori honela esleitzea :

- Inbertsio ataleko 1068 artikuluan (funtzionamendu soberakin kapitalizatua) : 591 423,09 €-ko zenbateko bat.
- Funtzionamendu ataleko 002 artikuluan (funtzionamendu soberakin atzeratua) :186 895,92 €-ko zenbateko bat.

2010eko apirilaren 7an bildu Finantza eta Herriko Langilegoaren Batzordearen irizpenaren jarraian eta, gai hori eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak :

- **ERABAKI du** 2009ko funtzionamendu soberakina gain honetan adierazi bezala esleitzea,
- **BAIMENA EMAN dio** Auzapez jaunari dagozkion tituluak emititzeko.

DUGUET anderea, TAPIA anderea, GOURAUD jauna eta MINTEGUI jauna abstenitu dira.

ONETSIA

2)Zerga tasen finkatzea

Txostengile : LOLOM jauna

(BAZERQUE anderea heldu da)

Kontuan harturik 2010eko herriko aurrekontuak **3 074 730** €-ko diru-sarrera fiskalak behar dituela, proposatu da 2010eko zerga tasak finkatzea behe honetako taulan adierazi bezala :

Zergak	2009ko tasak	2009ko zerga oinarria	2010era ko proposatu tasak	2010eko zerga oinarria	2010erako igurikatu irabazia
Etxebizitza	% 10,06	16 992 200	% 10,41	17 256 000	1 796 350
Lur eraikia	% 10,47	11 446 779	% 10,84	11 638 000	1 261 559
Lur soila	% 22,54	72 090	% 23,33	72 100	16 821
				Orotara	3 074 730

2010eko apirileko 7an bildu Finantza eta Herriko Langilegoaren Batzordearen irizpenaren jarraian eta, gai hori eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak :

- **FINKATU ditu** 2010erako zerga tasak gain honetako taulan adierazi bezala.

Oharrak :

- DUGUET andereak azpimarratu du Frantsesen erosteko ahalmena % 1,1ekoa izan dela 2009an. Beraz, abagunean kontuan harturik, zergen gorakada bat (% 3,50 etxebizitza zergarentzat) ezegokia iduritzen zaigu.
Gainera, Ziburuko herriak ez du proiektu berezirik proposatzen 2010erako.
Ondorioz, proposatu diren gorakaden aurka bozkatuko dugu.
- Auzapez jaunak zerrendatu ditu Ziburuko zerga tasa baino garestiago diren inguruko herrien zerga tasa desberdinak.
- LOLOM jaunak ondoko bi puntuak azpimarratu ditu: Jules Ferry eskolaren zaharberritzearen garrantzia eta Marinela eskolatik Zokoarainoko haurren garraioaren kostua handia. 500 000 €-ko mailegu bat aurreikusten da.
- GOURAUD jaunak galdera bat egin du asegurantzaren kostuari buruz, aurrekontuan ez baita agertzen.
- Auzapez jaunak erran du 2010ean, udal zerbitzuak bere gain hartuko duela haurren garraioa, ikasleen gurasoek laguntzaile gisa parte hartuko dutelarik. 24 haur hunkituak direnez, 2 bira aurreikusi beharko dira, udal autobusak 19 leku baizik ez baitauka.
- MINTEGUI jaunaren ustez, zerga tasak aipatzeak ez du zentzurik ez bada hasierako aurrekontuari lotzen.
- DUGUET andereak berriz galdegin dio martxoaren 15ean bertan ez zegoen DUBARBIER andereari Gazteria zerbitzuaren ekintza bilduma posta elektronikoz igortzea.

DUGUET andereak, BAZERQUE andereak, TAPIA andereak, GOURAUD jaunak eta MINTEGUI jaunak aurka bozkatu dute.

ONETSIA

3)Gazteriaren Zerbitzuaren aurrekontu erantsiaren onespena

Txostengile : LOLOM jauna

Dokumentuak deialdiari erantsi zaizkio.

Aurrekontua diru-sarreraren eta gastuen artean honela orekatzen da :

- Funtzionamendu atala : 428 050 €

2010eko apirileko 7an bildu Finantza eta Herriko Langilegoaren Batzordearen irizpenaren jarraian eta, gai hori eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak :

- **ONETSI du** Gazteria zerbitzuaren aurrekontu erantsia, aurkeztua den bezala.

DUGUET anderea, BAZERQUE anderea, TAPIA anderea, GOURAUD jauna eta MINTEGUI jauna abstenitu dira.

ONETSIA

4) Santa Teresa etxe-multzoaren aurrekontu erantsiaren onespena

Txostengile : LOLOM jauna

Dokumentuak deialdiari erantsi zaizkio.

Aurrekontua diru-sarreraren eta gastuen artean honela orekatzen da :

- Inbertsio atala : 3 100 €
- Funtzionamendu atala: 6 200 €.

2010eko apirileko 7an bildu Finantza eta Herriko Langilegoaren Batzordearen irizpenaren jarraian eta, gai hori eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak :

- **ONETSI du** Santa Teresa etxe-multzoaren aurrekontu erantsia.

DUGUET anderea, BAZERQUE anderea, TAPIA anderea, GOURAUD jauna eta MINTEGUI jauna abstenitu dira.

ONETSIA

5) Hasierako udal aurrekontuaren onespena

Txostengile : LOLOM jauna

Dokumentuak deialdiari erantsi zaizkio.

Aurrekontua diru-sarreraren eta gastuen artean honela orekatzen da :

- Inbertsio atala : 3 752 385,50 €
- Funtzionamendu atala : 6 451 517,92 €.

2010eko apirileko 7an bildu Finantza eta Herriko Langilegoaren Batzordearen irizpenaren jarraian eta, gai hori eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak :

- **ONETSI du** hasierako udal aurrekontua.

Oharrak :

- TAPIA anderearen iduriko, elektrizitatearen gorakada oso handia da. LAHOURNERE jaunak azpimarratu du estimazioa zerbitzu teknikoekin adostasunean egina izan dela.
- MINTEGUI jaunaren iritziz, herriak indarrak egin beharko lituzke eta energiaren aurrezte politika bat planteatu beharko luke.
- Auzapez jaunak azpimarratu du Bixintxo eta Eguberriko argiztapenak LED lanparen bidez gauzatzen direla. Apirilaren 12an, astelehena, bildu den ingurumen batzordeak herriaren ingurumen bilana aztertu du.
- TAPIA anderea eta MINTEGUI jauna damutu dira batzorde bilkura anitzetan parte hartu ahal ez izateaz, lan orduetan iragaten baitira.

- Etxebizitza sozialari buruzko diru-laguntzari dagokionez, MINTEGUI jaunak galdegin du diru-laguntza hori herriko etxeari dagokion zatia ote den eta zertan diren eskualdeko eta departamenduko zatiak.
- Auzapez jaunak baieztatu du herriko etxeari dagokion zatia dela. Gaineratu du beste zatiak legeak libratzen dituela.

TAPIA andereak eta MINTEGUI jaunak honako hau erran dute :

Donibane Lohizune-Ziburuko AEK elkartearen egoera seinalatu nahi genuke : 1989az geroztik, AEKk 3000 euroko diru-laguntza jasotzen zuen. Baina iaz, elkarteak erdia baizik ez zuen eskuratu. Aurten, diru-laguntza oraindik beheititua da eta 300 euro besterik ez dute jaso !

Aitzinatua den arrazoina hiru udal langileen formakuntzaren kostua da (1740 euro), hiru pertsona horiek euskarazko kurtsuak hartzen baitituzte etengabeko formakuntzaren esparruan.

Kontua da formakuntza segurtatzen duen erakundea AEK bera dela (Baionakoa), baina horrek ez du inola ere justifikatzen ahal tokiko AEKri zuzendu diru-laguntzaren beheititzea, zeren eta elkarte horri esker, urtero 110 pertsona baino gehiagok euskara ikasten baitute.

Etengabeko formakuntzaren eta diru-laguntzaren beheititzearen artean egin lotura ez da batere logikoa.

Galdegiten diogu Auzapez jaunari diru-laguntzaren zenbatekoa berriz ikustea eta gutxienez jatorrizko diru-laguntza – 3000 euro – mantentzea.

Bestalde, jakin behar duzue etengabeko formakuntza horren kostua herriko etxearen, EEPren eta herri elkargoaren gain dela : alabaina, gure hizkuntzak estatutu eta onarpen ofizialik ez duenez, etengabeko formakuntza kutxak ez du honen irakaskuntza bere gain hartzen. Horrelakorik ez zen gertatuko udal langileek ingelesa edo gaztelera ikasi nahi izan bazuten.

AEKk ez ditu egoera horren ondorioak pairatu behar.

Argi ikusten dugu, adibide honen bidez, gure hizkuntzak estatutu ofizial bat baitezpada aldarrikatu behar duela. Hala lortuko lituzke beste hizkuntzek dauzkaten abantaila berak. Aldarrikapen horren aldeko mobilizazioetan gure hautetsien sustengua ongi etorria izanen da, momentua iritsiko denean.

- IBARLOZA jaunak hori guzia baieztatu du eta oroitarazi du iaz aipatu zuela. Ongi liteke AEKren kurtsuak segitzen dituzten ziburutarren kopurua ezagutzea. Dena den, haren iduriko, diru-laguntzaren zenbatekoa berrikusi beharko da.
- Auzapez jaunak erantzun du ez duela AEKren funtzionamenduaren finezia ezagutzen, baina diru-laguntza bat ez da eskubide bat, ohitura bihurtzen bada ere. Zaila iduritzen zaio lokal bat aurkitzea, elkartearen etxearen baitan ere, bertako gela guziak (bat salbu) hainbat elkartek aldizka erabiltzen baitituzte. GOUAILLARDET jaunak baieztatu du.
- LOLOM jaunak azpimarratu du diru laguntzetarik % 26 euskal kulturari zuzenki ematen zaizkiola.
- DUBARBIER andereak gaineratu du AEKren biltzar nagusi batean parte hartu duela eta kari horretara lokalen arazoa aipatu zutela, arazo puntual bat bezala.
- TAPIA andereak galdegin dio Auzapez jaunari asuntua berrikusi ote daitekeen. Auzapez jaunak baieztatu du erantzuna eman dio.

➤ DUGUET andereak ondoko oharrak aurkeztu ditu :

Funtzionamendu aurrekontua

Izaera orokorreko kargak : + % 6,90 - Langilego kargak : + % 2,47

Kudeaketa arrunteko kargak : % 1,05eko beheititzea

- Langilegoaren formakuntza planik ba ote da ? Ez dugu aurrekontu lerrorik aurkitzen.
- Hezkuntza kodeko L.212.10 artikulua (2005eko urtarrilaren 18ko legea) aurreikusten du Herriko Kontseiluaren delibero batek eskola kutxa bat sor dezan herri bakoitzean. Horregatik aurrekontu lerro bat sortua izan da 65 7362 artikuluan (Laguntza Sozialerako Herriko Zentroaren lerro berean).

Orotara, gastuak % **3,46** emendatzen dira, nahiz Aurrekontu Norabide Eztabaidan aurrekontu murrizketa (% **2,65**) aplikatu nahi zenuten.

Diru-sarrereri buruzko oharra : kontribuzio zuzenak % **4,68** emendatzen dira orokorki eta **aurka bozkatuko dugu** (tokiko zergen gorakadari buruzko botoarekin adostasunean).

LAHOURNERE jaunak erantzun du langilegoaren formakuntza planaren aurrekontu lerroa 6184 lerroan aurkitzen dela.

Eskola kutxa 2001ean kendua izan da ez baitzuen aurrekonturik aurkeztu funtzionamenduko azken hiru urteetan.

Inbertsio aurrekontua

Maileguak : 503 000 €

Zubiburuko aurrekontua : 780 000 € . Iaz inbertsio diru-sarreretan oraindik zegoen (572 000 €ko « Olaizola » gastuekin), baina aurren, ez dugu aurkitzen, nahiz gune horretan 316 000 € gastatu diren (Olaizola, oraindik ere, eta aparkatzeari buruzko azterketa bat).

Bestela, ez da ezer berezirik 2010eko inbertsioetan, Bordagaineko dorrearen obren amaiera izan ezik. Beste zaharberritzeak aipatuz (itsaslabarrak, seroategia, eta abar.), argi da 2010ean ez dugula ezer eskuratuko egoera txarrean den Frantses Estatutik.

Jules Ferry eskola : Marinela eskolako mehelin gunean, biltegiratze **urmaelaren kokaeraren akatsa** konpondu baino, nahiago izanen genuen gure haurrentzako aisialdi zentro bat ikusi :

2010erako : 685 000 € aurreikusiak ; 2009an : 36 206 € ; Aterbegabeko Aisialdi Zentroari buruzko azterketa : 56 666 €... Orotara : **777 872 €**

Espero dezagun enpresaren eta EHHHEren asegurantzak parte hartuko dutela !

Ondorioa

Ziburutarrek dute aurtengo udal aurrekontua hornituko, emendatzen diren tokiko zergen bidez :

Laburbildurik, 2010ean, kudeaketa arrunt horrek Ziburuko herriari ez dio proiektu berritzaile eta dinamiko bat ere eramateko aukerarik ematen.

Maniobratzeko marjina bat lortzeko aterabide bakarra azken urte hauetan erosi duzuen ziburutar ondarea saltzea izanen da (Recollets, Azkena etxea, Novelty lokala, kasino ohia zegoen lursaila).

Horrek frogatzen du erosketa horiek kostu ikaragarri bat badutela :

- ustekabekoei aurre egin behar baitiegu,
- aisialdi zentroa bezalako proiektuak atzeratu behar baititugu,
- eta ez ditut aipatzen kanpainan – doi-doia duela 2 urte - hartu zenituzten engaiamenduak.

- LOLOM jaunak erran du Zubiburuko aurrekontua behin betiko txertatua dela herriko aurrekontuan eta etxe-multzoaren inguruak ez direla aurrekontu horretan.
- MINTEGUI jaunak azpimarratu du etxe bat jadanik txertatua izan dela etxe-multzo horretan. Gainera, beharrezkoa izanen litzateke bidegurutzearen itxura berrikustea.
- Auzapez jaunak erran du su gorri bat aurreikusten dela, biribilgune baten aukera baztertua izan baita.
- DUBARBIER anderearen ustez, aisialdi zentroari buruzko azterketan inbertitu dirua ez da galdua.
- MINTEGUI jaunak bere azterketa orokorra proposatu du. Nahiz krisialdi batean gauden, gehiago gastatzen dugu.
Langilego gastuak etengabe emendatzen dira : funtzionamendu gastuetarik % 52.5 osatzen dute, hau da, batez besteko nazionala baino 3 puntu gehiago. Karrera amaieran dauden A kategoriako koadroak enplegatzen dira, langilego gastuak EHHHekin eta herriarteko sindikatuarekin partekatze ordez, maila horretan bereziki. Ez da inbertsio bat ere zerga gehiago ordaintzeko gogoia ematen duenik, akatsak ordaintzeko baizik ez dute balio : biltegiratze urmaelaren kokaleku txarra, kasinoa, itsaslabarrak,...
- Aurrezteko ordez, hiru palankak tiratzen ditugu : kreditua, ondarearen salmenta eta zergen gorakada aurrekontua orekatzeko : hala, oinarriak kontatuz, herriko zergak % 5 garestitzen dira.
- LOLOM jaunak uste du ahalik eta hobekien inbertitu behar dela, ala ez inbertitu.

DUGUET andereak, BAZERQUE andereak, TAPIA andereak, GOURAUD jaunak eta MINTEGUI jaunak 7311 kapituluaren aurka bozkatu dute (kontribuzio zuzenak).
Gainontzeko aurrekontuari dagokionez, abstenitu dira.

ONETSIA

6) Etxebizitzarako Elkartasun Fondoa

Txostengile : LOLOM jauna

Auzapez jaunak jakinarazi die Herriko Kontseiluko kideei 1991ko agorrilaren 2ko delibero baten bidez, Ziburuko herriak erabaki zuela Etxebizitzarako Elkartasun Fondoan parte hartzea.

Udalaren parte hartzea urtero berritua izan da. 2010erako kontribuzioa 2 782,78 €-koa da.

2010eko apirileko 7an bildu Finantza eta Herriko Langilegoaren Batzordearen irizpenaren jarraian eta, gai hori eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak :

- **BAIMENA EMAN dio** Auzapez jaunari 2010eko parte hartzea ordaintzeko, behar diren kredituak 2010eko hasierako aurrekontuan idatziak direlarik, 6 281 artikuluan.

Oharrak :

DE CAUPENNE andereak 2010eko martxoaren 31ko Kontseilu Orokorraren gutun bat irakurri du. Gutunak honako hau azaldu du :

- 8 familiak etxebizitza lortzeko laguntza eskaera bat aurkeztu dute eta 4 086,48 € horretarako esleituak izan dira ;
- 16 familiak etxebizitzan egoteko laguntza eskaera bat aurkeztu dute eta 7771,37 € horretarako esleituak izan dira.

AHO BATEZ ONETSIA

7) Departamenduko Energia Hornikuntzaren Erabilgarritasun eta Mantentzerako Laguntza eta Prebentzio Fondoa

Txostengile : LOLOM jauna

Auzapez jaunak jakinarazi die Herriko Kontseiluko kideei 1994ko martxoaren 24ko delibero baten bidez, Ziburuko herriak erabaki zuela Departamenduko Energia Hornikuntzaren Erabilgarritasun eta Mantentzerako Laguntza eta Prebentzio Fondoan parte hartzea. Udalaren parte hartzea urtero berritua izan da. 2010erako kontribuzioa 2 416,55 €-koa da.

2010eko apirilko 7an bildu Finantza eta Herriko Langilegoaren Batzordearen irizpenaren jarraian eta, gai hori eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak :

- **BAIMENA EMAN dio** Auzapez jaunari 2010eko parte hartzea ordaintzeko, behar diren kredituak 2010eko hasierako aurrekontuan idatziak direlarik, 6 281 artikuluan.

AHO BATEZ ONETSIA

Oharrak :

DE CAUPENNE andereak 2010eko martxoaren 31ko Kontseilu Orokorraren gutun bat irakurri du. Gutun honek azaltzen du 23 familiak energiarako laguntza eskaera aurkeztu dutela eta 13 398,12 € horretarako esleituak izan direla.

Bestalde, 19 familiak bestelako laguntza eskaerak aurkeztu dituzte (etxebizitza aseguratza, ura, telefonoa) eta 2 201,60 € horretarako esleituak izan dira.

8) Herriko oihanaren antolaketa : finantzaketa eskaera

Txostengile : LOLOM jauna

Auzapez jaunak oroitarazi die Herriko Kontseiluko kideei 2006ko uztailaren 18ko delibero baten bidez, Herriko Kontseiluak Oihanen Bulego Nazionalak egin diagnostikoa eta oihanaren antolaketa dokumentua onetsi zituela. Azken dokumentu horren arabera, oihanari aplikatzen zaizkion arauak finkatzen dituen, oihanaren azalera 73,37 ha-koa da. Dokumentuaren balio epea 15 urtekoa da, erran nahi baitu 2006-2020 eperako balio duela.

Auzapez jaunak gaineratu du 2010erako Oihanen Bulego Nazionalak helarazi diola oihan antolaketarako obren debisa, 13 047.00 €-koa dena (BEZik gabe).

Obra horiek eskuratzen ahal dituzten laguntzak honako hauek dira :

- Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoaren konkurtso fondoak,
- Eskualdeko Kontseiluaren eta Kontseilu Orokorraren laguntzak.

2010eko apirilko 7an bildu Finantza eta Herriko Langilegoaren Batzordearen irizpenaren jarraian eta, gai hori eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak :

- 2010erako oihan antolaketako obrak 13 047,00 €-tan (BEZik gabe) **FINKATU ditu**,

- **BAIMENA EMAN dio** Auzapez jaunari Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoari, Eskualdeko Kontseiluari eta Kontseilu Orokorrari ahalik eta laguntza altuenak eskatzeko, 2010erako obren kostua (13 047,00 € BEZik gabe) oinarritzat hartuz.

Oharrak :

- MINTEGUI jaunak galdegin du obrak gauzatuko ote diren 2010ean eta asegurantzek obra horietan parte hartzen ote duten, sutearen jarraian.
- Auzapez jaunak baieztatu du obrak gauzatuko direla eta asegurantzak ez dituela obrak bere gain hartzen. Gehitu du Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoaren laguntza % 10ekoa izaten ohi dela.
- GOUAILLARDET jaunak azpimarratu du kudeaketa plan berri horren helburua zuhaitzen haztea laguntzea dela, sutearen jarraian.

AHO BATEZ ONETSIA

III/ Herriko Langilegoari buruzko gaiak

1) 2010eko martxoaren 14 eta 21eko eskualdeko hauteskundeetarako ordainsariak

Txostengile : LOLOM jauna

Auzapez jaunak oroitarazi die Herriko Kontseiluko kideei lurralde koadroak goren mugako ordainsarien erregimenaren pean daudela lan gehigarrietarako.

Ondorioz, hauteskundeen kariatara langile horiek ordu gehigarriak egiten dituztenean, komeni da erabaki bat hartzea « hauteskundeetarako goren mugako ordainsari osagarrien » emateari buruz.

Esleitua den kreditua honela kalkulatu da: lan gehigarrietarako goren mugako ordainsariaren gehienezko balioa baldintza horiek betetzen dituzten onuradunen kopurutik biderkatuz.

2010eko apirilko 7an bildu Finantza eta Herriko Langilegoaren Batzordearen irizpenaren jarraian eta, gai hori eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak :

- **ERABAKI du** hauteskundeetarako ordainsari horiek ematea 2010eko martxoaren 14 eta 21eko hauteskundeetan bozka bulegoak atxikitzen lagundu duten langileei.

Oharrak :

- MINTEGUI jaunak eta TAPIA jaunak ezagutu nahi dute hauteskundeetarako emanak izan diren ordainsarien zenbateko osoa.
- BORDENAVE jaunaren erantzuna : 3000 € orokorki. Lurralde koadroei dagokienez, 2 pertsona hunkituak dira, beraz 150-180 € pertsonakokontatu behar da.

AHO BATEZ ONETSIA

IV/ Gai teknikoak

1) Karrika izendapena.

TXOSTENGILE : LALANNE jauna

Auzapez jaunak jakinarazi die Herriko Kontseiluko kideei hainbat izendapen eskaera aztertuak izan direla 2010eko martxoaren 22an bildu Kultura Batzordean.

Aldeko irizpena lortu duten karrika izendapen proiektuak ondokoak dira :

Gustave eta Charles Colin margolari-eskultoreen pasabidea

Pasabide ikusgarri batek, maila batzuk dauzkanak, Iturriko karrika eta Agorette karrika juntatzen ditu, Colin familiaren etxearen parean amaitzeko.

- Gustave Colin : (1828-1910) Arras-en sortua
1860an, Ziburun ezkondu zen Marie Carmier-ekin
Margolaria : laxo partida Hondarribiako harresietan, Ziburuko plaza, pilota-jokoa Urruñan, Donibane Lohizuneko herriko etxea
35 margo Arras-en daude, jatorriz hangoa baitzen, besteak Franziako hainbat museotan barreiatuak direlarik

- Charles Colin (1863-1950) Ziburun sortua
Gustave-ren semea, margolari eta eskultorea. Aitaren ikasle, Ziburuko 1. auzapezordea.
Bake epailea Ezpeletan. 9en taldean parte hartu zuen. Margoak : Ziburuko hondartza, Ziburuko bainuak, pilota partida Ziburuko pilota-leruan. Hilen oroitarriko kartoinaren egilea.
Musikaria : hainbat pastorala, horien artean « Maitena ».

Soubelet kontserbatzaileen hostailbidea

Bide berdearen proiektua (oinezko eta 2 gurpilekoentzat) trenbideari jarraitzen zaio Soubelet kontserbategiaren egoitza ohiaren aitzinean.

Lantegi horrek Canet lantegia ordezkatu zuen 1935ean. Hasieran, Jean Pierre Soubelet zen lantegiko nagusia. Gero, Robert eta Jacques semeek lekukoa hartu zuten.

Soubelet familia Ziburun bizi zen, Iturriko karrikan.

Herriko kontserbategien historian aztarnak utzi ditu familia horrek, Chancerelle familiak edo Elissalt familiak bezainbat. 1978an, Saupiquet enpresak erosi zuen.

Jean Baptiste Garra pilota-lekuko plaza

Jean Baptiste Garra (1926-2004) haginlari-kirurgialaria auzapezordea izan da Rospide medikuaren eta Rodolphe Fischer-en agintaldietan.

Gizazale eta bihotz onekoa baitzen, sozialaren aldeko lan handia egin zuen bere herrian. Zintzotasun handiko gizona zen.

Bere etxetik hurbil dagoen pilota-lekuko plazari bere izena eman geniezaioke :

J.B.Garra – medikua, auzapezordea (1926-2004) - pilota-lekuko plaza.

Azalpen horren jarraian eta, 2010eko martxoaren 22an bildu Kultura Batzordearen irizpena hartu ondotik, komeniko da Herriko Kontseiluak :

- Tokien izendapenak gain honetan aurkeztu bezala **ONAR ditzan**,
- **BAIMENA EMAN diezazion** Auzapez jaunari pasabide, hostailbide eta plaza izendapen berri horien gauzatzea ahalbidetzen duten dokumentu administratibo guziak izenpetzeko,
- izendapen hori elebiduna izatea **ERABAKI dezan**.

Oharrak :

MINTEGUI jaunak erran du hobe litzatekeela Soubelet bizikleta bidea plaka ezarri aitzin obratzea.

LOLOM jaunak erantzun dio lehenik plakaren eskaera aurreikusi behar dela.

AHO BATEZ ONETSIA

Gai zerrenda agortu denez, bilkurari amaiera eman zaio 20 :00etan.